


URBASAKO

Ipar mendi-hegaleko atakak

(I. atala)

Mikel Nazabal



Goian, behean eta eskuman.

- Urbasako ipar gailurreria
- Olaztiko portu zaharra
- Olaztiko portu zaharra (goi-lautada)

■ AURKEZPENA

ATAKAK txikiak dira eta aspaldiko bideak gehienak, gurdibide izatera ere iritsi ez zirenak, handia eta zorrotza bait zen Sakanako herrietatik Urbasa mendizerrara heltzeko gainditu beharreko desnibela.

Artzainek eta garai bateko salerosleek erabiltzen zituzten mendate hauek ganadua eta merkantziak mendi alde batetik bestera eramateko.

Artikulu honetan Urbasa-Andia Parke Natural izendatu berriaren ipar mendi-hegaletik iragaiten diren 10 ataketan barrena ibiliko gara.

■ Kokapena

Urbasa mendia, komunitateko ipar mendebaldean kokatua, Arabako mugan hain zuzen ere, Nafarroako mendilerro nagusi eta bisitatuenetakoa da.

Probintziako geografian, inguruko lurretatik argi bereizten den gunea osatzen du.

Hogei bat kilometrotan zehar zabaltzen den plataforma luzexka da.

Mendia ekialde-mendebalde norabidea duen goi-lautada batez osaturik dago, garaiera alde handirik gabe, Zalbide arrasoko 783 metrotatik Baiza tontorreko 1183 metro bitartera.

Mendi iparraldeko gailurreriak 1100 metro inguruko altuera du eta Sakanako herriekiko 500-600 metroko alde.



■ Geologia

Urbasa mendiak gunee geologiko bakarra osatzen duenez, txikiak dira bertan ikus daitezkeen alde litologiko estruktural eta morfologikoak.

Mendia, ekialdetik mendebaldera zabaltzen den goilautada da, Maestrichtense eta Tertiarioko (Paleozeno eta Erdi Eozeno) itsas jatorriko materialez osatua.

Paisaia hau mendiko karst mediterraneoaren barruan sartzen da, 1000 eta 1500 metro tartekoa eta non elementu karstikoen agertzea neurritzkoa den.

Mendiaren ekialdean iparraldetik hegoaldera doan faila sistema batek bereizten du Urbasa Andiatik, Zalbide arrasoaren inguruan. Norabide berean doa egun, Lizarragako tuneletik Lizarrara doan errepeidea, Zumbeltzeko failarekin ia bat eginez.

■ Baselizak


Bai Urbasa mendian bertan, bai bere ipar hegalean (Barga), ugariak dira baselizak. Ia ziurta genezake garai batean Sakanako herri guztiek zutela baseliza bat edo gehiago bargan edo gailurrerian.

Gailurrerian kokaturiko baselizak

Baseliza	Herria
Santa Marina	Iturmendi – Bakaiku
San Adrian	Lizarraga

Mendi hegalean (Bargan) kokaturiko baselizak

Baseliza	Herria
San Pedro	Iturmendi
San Benito	Bakaiku
Konzezio	Etxarri-Aranatz
San Miguel eta San Martin	Lizarraga



■ Parke Naturala

1980an hasi zen prozesua, Nafarroako Aurrezki Kutxak urte berean argitaratutako "Navarra, Guía Ecológica y Paisajística" lanaren egileek egindako proposamena jarraituz.

Urte batzuk beranduago eta Nafarroako Foru Komunitateko legediaren barne, 1997ko martxoaren 12ko Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 32. zenbakian, otsailaren 27ko 3/1997 Lege Forala argitara eman zen eta bertan Urbasa-Andia Parke Naturala deklaratu.

■ Atakak sarrera

Sakanako mendebaldean, Arabako mugan, Ziorditik hasiko gara ekialderantz 13 kilometrotan Sakanatik Urbasaraino eramaten gaituzten 10 ataketako (2 errepeide) bakoitzaren ibilbidearekin.


Garai batean mendate edo besterik gabe Urbasara igotzeko bide hauek, gure arbasoek erabiltzen zituzten mando edo astoekin (Mandabide, Astaportu) egurra, gatza, karea (Egurbide, Gatzabide, Kisubide...) garraiatzeko.

Mendizale ikuspuntutik bide edo ataka hauek ez dute orografiaren desnibelak berak (350-610 metro bitartekoa) ematen dienaz aparte bestelako zailtasunik.

Urbasa Mendiko tontorrek eta beraietara igotzeko sarbideak Sakanatik

Gailurra	Garaiera	Sakanatik sarbidea	Euskal Herriko gailurren katalogoa
Legunbe	1127 m	Ziordia	Bai
Gainsol	1068 m	Ziordia-Olazti	Ez
Bargagain	1154 m	Altsasu-Olazti-Urdiain	Bai
Sta. Marina	1068 m	Urdiain-Iturmendi-Bakaiku	Ez
Hiruaitz	1144 m	Bakaiku-Etxarri Aranatz	Ez
Baiza	1183 m	Bakaiku-Etxarri Aranatz	Bai
Arzabal	1070 m	Etxarri Aranatz	Ez
S. Adrian	1113 m	Etxarri Aranatz-Lizarraga	Ez

Urbasako Jpar mendi-hegaleko atakak



Ziordia. Plaza (545 m). Plazatik hasi eta kale nagusitik jaitsiko gara, N^o S^o del Milagroko baseliza ondotik (ezk.) Sakanako saihezbide aldera jarraituko dugu, horretarako egindako tuneletik (herriko betiko sarrera berreskuratzeke herritarrek asko borrokatu ondoren lortua).

Errepidearen beste aldean eta 200 bat metro eskuin aldera, lehenik soroetara eta gero erdi galdutako senda batetik mendi tontorrera eramango gaituen bidea hartuko dugu.


Salbideko iturria igaro (esk.) eta pinudi txiki batera iritsiko gara.

Pinudia atzean utzi ondoren, hurrengo bidegurutzan ezkerreko bidexka hartuko dugu igoera norabidea aldatuz, Olaztik dermioko mugarantz, aintzinean oinez edo astoarekin egiten zuten moduan, mendi gaina hartzeko sarbide bakarraren bila.

Pagoz osatzen da gehienbat bertako arboladia, zenbat eta gorago orduan eta ugariagoa.

Era berean igotzen goazen neurrian eta goizeko laino artetik, Olano, Legunbe, Aratz eta Aizkorri mendiak agertuko zaizkigu.

Bideko ezker ertzean dagoen Urkimakur haitza atzean utzi eta malda leuneko senda polit batetik jarraituko dugu mendiaren goialdera Ziordiko portugaineraino (1040 m) iritsi arte.




Goian, behean eta eskuman.

- Olaztik portu zaharra (ur-jauzia)
- Urdaingo, portu zaharra Atzean Aizkorri
- Urbasako begia (Arku naturala)




2 - OLAZTIKO PORTU ZAHARRA



Olaztiko herria 530 m
 Olaztiko portugaina 880 m
 Igoera denbora Ordu 1 eta 15' Aldea 350 m



3 - URBASAKO MENDATEA



Olaztiko herria 530 m
 Urbasako mendatea 880 m
 Aldea 350 m

Olazti. Plazatik hasi (530 m), herria zeharkatu dugu Urbasako errepedearen (530 m), herria zeharkatu dugu. Errepide eta etxeen (esk.) artean "Cementos Portland" enpresak duen harrobira doan bidea hartuko dugu.

Bide hau utzi egingo dugu zuhaitzian sartzen den bide zahar bat hartzeko. Haseran zuhaitz mugatu ugari ikusiko dugu sasidia nagusi bada ere; gero hariztia eta azkenik pagadia.

Bideak garaiera hartzen du beti ere gariera itzalpean Troskera (ezk.) errekeren albotik.

Ur jauzira ailegatu, bere gainetik pasa eta errepede gurutzatu, egun urik ez darion iturri zahar batera iritsiko gara.

Berriz ere errepede gurutzatu eta orain errekeren ezkeraldetik jarraituko dugu.

Hemendik Ziordi, Olazti, Altsasuko zati bat eta Urbasako gailurrerriaren bista ederrak dauzkagu.

Bide politik aurrera darrai aldapa zorrotzik gabe mendi gainera ailegatu arte, Portugain (880 m). Hauxe da egun ere, maiatz aldera inguruko herrietako artzainek ganadua mendira igotzeko erabiltzen duten bidea, neguko hotzak eta lehen elurteak hasi arte.


Olazti. Plaza (530 m). Ezinbestekoa bihurtu zen dudarik gabe Urbasako mendatea, bai abeltzaintzat Urbasara bere abereekin igotzeko, bai mendiko bi aldeetako haranen arteko kultura eta merkantzien garraio eta trukea burutzeko.

Olaztitik hasten den Urbasako mendate honi, ondoko Altsasu herriak datorren beste errepede bat lotzen zaio Altamira izeneko tokian.

Ur jauziraino (ezk.) aldapa gehiegirik gabe darrai errepedeak eta hortik aurrera hasten da mendate txiki baina polit honen zatirik gogorrena, kotxe lasterketa zaletuek hainbeste maite dituzten bihurtune estu ugariarekin.

Ekainaren bukaera aldera ospatzen da berriz hemen, urte batzuen etenaren ondoren hain ezaguna den "Urbasako Igoera" kotxe lasterketa.

Urbasako Ipar mendi-hegaleko atakak



Altsasu. Udaletxe-Plazatik (540 m) hasiko dugu ibilbidea, kale nagusitik herriko behe aldera, Bentara, abiatuz.

Errepideko Hirubide izeneko bidegurutzean eskuinaldera jarraituko dugu 200 bat metro.

Kamioi garbitegi baten ondora iristean, errepidea utzi eta ezkeraldera sartzen den bidea hartuko dugu hegoalderantz.

Bide hau jarraituko dugu soro artean pista batekin topo egin arte eta hau hartuz Sakanako autobia gurutzatuko dugu tunel batetik.

Tunela igaro bezain pronto, eskuinaldera doan pistan 25 bat metro egin eta ezkeraldera, hegoalderantz, sartzen den senda hartuko dugu bertako hesian dagoen pasaleku batetik.

Ez da urte asko, Sakanako beste herrietan bezala, herriko neska mutilek inguru hauek zizuztela udan etxeko behiak, "ibintzeta", hau da, herri inguruko larre horietako belar freskoa jatera.




Sendak berehala gora egiten du lehenengo aldapa zorrotza gainditzeko.

Muino gainera iristean aintzinako dorre bat aurkituko dugu. Badira Sakanan zehar eta toki estrategikoetan, horrelako beste dorre batzuen aztarnak. Dirudienez hauetan sua pizten zuten Sakana eta Arabako lautadaren artean larrialdi abisuak pasatzeko, Ipar Amerikako Indioen antzera.

Berriro bidean, margoturik agertzen diren marrak jarraituko ditugu.

Hasi da aldapa, baina guk, geldi-geldi eta inguruko pagadiak eta bere itzalaz gozatuz gora segiko dugu noizean behin arnasa hartzeko atsedenditxo bat eginez, goiko atakaraino ailegatu arte (1150 m).



Urdiain. Udaletxe Plaza (545 m). Udaletxe aurrealdeko aparkalekutik hasiko dugu ibilbidea, herritik hegoalderantz, Barga aldera urrunduz.

Herri kanpoaldeko azken etxeen ondoan, hego ekialderantz bidea hartu, soroen ertzetik burdinezko langa bat atzean utzi eta gero eta itxiagoa den pagadi batean sartuko gara.

Bideak zorrotz ekiten dio gora bihurtune estu bateraino, bertatik mendiko gailurreria ikusten hasten garelarik.

Ekialdera jarraitzen du bideak, gailurreriako paretatzarren artean sarbide bila

Hemengo arboladia, pagoa, gaztea eta sarria da; zuzen gora ekiten dioten landare gazteak. Aldapa puntu honetan zertxobait leuntzen da.


Burdinazko langa bat (somier zahar bat) zeharkatu ondoren, ezkeraldea utziko dugun aska baten albotik pasako gara eta alabrezko itxitura gainditu horretarako prestatuturiko egurrezko pasalekutik.

Mendi gailur aldean gaude (Arramaila) eta senda batetik lehenik mendebalderantz jarraituko dugu, gero berriz norabidea aldatuz hegoaldera hartu zuzen dagoen gailurreria iristeko.

Burdinezko langa (Arramaila 1020 m). Hauxe da Urdiaingo portubide zaharra eta bertan ikusiko ditugu lurtean harri pilaz eraikitako uso ehizarako postuak.

Ezkerra, erdian eta eskuman.

- Bargagain (Altsasuko gurutzia)
- Ziardiako portu zaharra
- Legunbeko begia




6 – ITURMENDIKO PORTUA



Iturmendiko herria 520 m
 Iturmendiko portugaina 1020 m
 Igoera denbora Ordu 1 eta 15' Aldea 500 m

7 – BAKAIKUKO PORTUA



Bakaikuko herria 510 m
 Bakaikuko portugaina 1100 m
 Igoera denbora Ordu 1 Aldea 590 m

Iturmendi. Udaletxe Plaza (545 m). Plazako iturri politaren ondotik eskuineko kalea hartuko dugu mendebalderantz gero hegoaldera, mendi aldera San Pedro basilizaraino eramango gaituen pistarekin topo egin arte. Hemen PR (Ibilbide laburra) bati dagokion markaketa (kolore hori eta zuriko zerrenda) ikusiko dugu eta bera jarraituko dugu gailurreraino

Soro artean, pistatik jarraitu eta honek bapatean norabidez aldatu eta mendebalderantz burdinezko langa batera hurbilduko gaitu. Hemendik aurrera ugariagoa da arboladia.

Angiturriko iturria (esk.) igaro eta ordekatxo bat atzean utzi ondoren, beste alantzerantz langa bat pasako dugu eta bertatik Bakaiku, Etxarri Aranatz eta Arbizuko (ezk.) herriak ikus daitezke.

Zertxobait aurrerago argi ikus daitezke bideko harlozak, bide honen aintzinako erabilera adierazten dutenak, Nicolas Arbizuk, inguru hau ondo ezagutzen duen gizonak dioen moduan, "agian Sakanatik mendira eramaten duten bideetatik zaharrena da".

Tontorrera iritsi aurretik Santa Marina iturritik (esk.) igaro eta pago galanten artean igoko gara, kararria gero eta gehiago agertzen delarik, gailurreraino iritsi arte azkenik (1020 m). Dagoeneko zuhaitzak desagertu dira.

Bakaiku. Plaza (510 m). Herriko plazatik errepide ondoan dagoen iturriraino hurbilduko gara. Hemendik ezkerreko kalea hartu eta hegoalderantz herri kanpoaldera joango gara.

Armarridun etxe dotore batzuk begietsi ondoren, iturri-garbitoki eder eta ongi zaindu baten ondotik pasako gara; ezkeraldera doan kaletik segi eta hartxintzarrezko pista bat bat aurkituko dugu (herri goialdean gaude).

Urbasako Jpar mendi-hegaleko atakak

Pista honetatik borda batera iritsiko gara eta hemendik burdinezko langa pasa ondoren (berriz itxi egingo dugu) bidegurutze bateraino. Ezkerreko bideak Etxarriko astaportuarekin bat egiten du. Guk eskuinekoa hartuko dugu, pagadia hasten da eta aurrez aurre ikusten dira egundoko Hiru Haitzak, non, urtero paratzen den maiatzaren lehenean Bakaikuko "Maiatza", eta eskuinaldera berriz Santa Marina basiliza.

Ezkerraldeetik datorren bide batekin elkartu eta burdinezko langa bat pasa ondoren pago altu eta gazte baso batean sartuko gara. Hauen adaburuetan uso ehizarako zenbait postu ikus daitezke.

Gora jarraituz, aldapa zorrotzagoa da orain, baina, hala ere merezi du. Hemendik hurbiletik eta primeran ikus daiteke Hiru Haitzetan dagoen "Maiatza".

Ibilbidearen goialdean sendak alanbrezko itxitura bat (esk.) darrai amaieran Bakaikuko portugainera iritsi arte (1020 m). Toki ederra hau; bertatik begizta dezakegu Santa Marina basiliza eta Sakanako mendebaldea, atzealdean Aratz eta Aizkorri dituelarik.




Bidea geldi-geldi, goraka doa, eta igotzen goazen neurrian haritzak desagertu eta pagadi eder bat ageri da.

Etxarriko askara iritsiko gara eta kontu handiz ibili beharko dugu amildegi honen ondoan. Hemen malda zorrotzaren eta harrien ondorioz bidea bitan zatitu zen.

Eskuinaldera, portu zaharra, oinez ibiltzeko. Ezkerrera berriz portu berria, gure aitonek egur edo ikatz bila mendira joaten zirenean erabiltzen zutena.

Bietako edozeinetatik ere, berehala ailegatuko gara Etxarriko portugainera (1040 m). Portu berria zerbait lauagoa da eta zaharra berriz senda antzekoa eta aldapatsua.



Etxarri-Aranatz. Udaletxe-Plaza (500 m). Herri erditik hasi eta bi aukera ditugu Bargaraino, hau da, basoa hasten den lekuraino ailegatzeko.


Bietako edozein hartzeko ere hegoalderantz abiatuko gara errepideko bidegurutzearekin topo egin arte eta hemen erabaki beharko dugu nondik joan.

Artxuloko baserri ingurutik joatea aukeratu ezkerreko zuzen jarraituko dugu eta 25 metro aurrerago Borda erretegia erakusten duen seinalea jarraituz pista bat hartuko dugu.

Soro artean segi, Sakanako autobia tunel batetik pasa, herri inguruko belardiak zeharkatu eta harizti eder batean sartuko gara, ezkerreko muino txiki batera heltzeko. Hemen bigarren bidea elkartzan zaio guk egin dugun honi.

Bigarren bidea egiteko, hau da, Konzezio basiliza inguruko bidea, bidegurutzetik eskuinaldera, mendebaldera, jarraituko dugu errepidetik. Herria atzean utzi eta industrigunera (esk.) iritsi aurretik ezkerreko pistatik sartuko gara Konzezio basilizara ailegatu arte.

Pista hau jarraituz berehala sartuko gara basoan. Ezkerreko senda batetik eta hormigoizko ur depositu baten eskuinaldetik beste bidearekin topo egingo dugu.



Lizarraga. (610 m). Herri erdian errepide ondoko iturri-garbitokitik hasiko dugu gaurko txango eder hau, herritik kanpora mendebalderantz garamatzen pista batetik.

Herriko baratza eta soro artetik burdinezko langa batera ailegatuko gara. Langa igaro bezain pronto eta eskuinaldean dagoen ur depositu ondoan iturri txiki bat dago.

Erabiltzen ari garen pista hau berria da, Sakanako autobia egin zutenean erabili zuten, harrobi batera eramaten duena hain zuzen ere.

Ezkerra eta eskuman.

- Lizarraga, Urbasako gailurreritik
- Etxarriko meza

Harrobiraino iritsi edo lehengo bide zaharretik joan gaitzke pistatik ezkerraldera ateratzen den lehenengo bidea hartuz.

Maldan gora pagadian sartuko gara beste bide batzuekin topo eginez. Ezkerraldera jarraituko dugu aldapa zorrotzetik pagoen itzal freskoa eskertuz.

Laster pista batekin topo egingo dugu eta ezkerraldean metro batzutara txerri zotola bat ikus dezakegu.


Pista honetatik eskuinaldera joko dugu lehen aipatu harrobira goiko aldetik iristeko.

Pago gazte eta handien artean pista hegoekialdera sartzen da. Berehala ezkerraldean Mundinurriko iturritik pasako gara (ur ona eta freskoa).

Pista bukatzen mendibideak jarraitzen du gorantz.

Gora goazenean ezker aldean Lezebeltz ondotik igaroko gara, paisaia zoragarria, San Donato-Beriain aurrez aurre.

Hemendik aurrera ezkerraldean, malkarra da nagusi eskuinaldean, Bargan, pagoen berdetasuna nabarmentzen den bitartean, astaportu gainera iritsi arte (1050 m).




Lizarraga. (610 m). Herri txiki, eta polit honetan hasten da tunelera (mendi gainera) eramango gaituen mendatea.

Mendate gehienak bezala bihurgunez josirik dago eta gora egiten dugun neurrian berehala izango dugu herriaren ikuspegi ederra.

Mendate erdialdean, Olatazarreko iturri ondoan, Arbizu, Unanu eta Dorraotik datorren errepidea lotzen zaio, hemendik aurrera errepide bakarrak goraino jarraitzeko.

Ekiialderantz jotzen du gehienbat errepideak, noizbehinka eta biderik egokiena aurkitu nahian mendebalderantz egiten badu ere.

Bihurgune oso estu bat pasa ondoren berehala aterako gara mendatearen goiko aldera.



Hemen geldialditxo bat egingo dugu bertan dagoen begiratokian, Sakanako zati honen ikuspegi ederraz gozatzeko. Etxarri Aranatz, Lizarragabengoa, Lakuntza, Arbizu, Unanu, Dorrao eta Lizarragako herriak ikus daitezke, Aralarreko San Migel eta Beriaingo tontor malkartsuaren gaineko San Donatorekin batera.

Lizarragako tunela zeharkatzea besterik ez zaigu falta, Benta Isabelera ailegatuz (1020 m). □

Bibliografia

- Egile ugari. "Navarra ecológica y paisajística". Caja de Ahorros de Navarra. 1980
- Egile ugari. "Los grupos humanos en la Prehistoria de Encia-Urba". Eusko Ikaskuntza. 1982-83
- Perez Olló, Fernando. "Ermitas de Navarra". Caja de Ahorros de Navarra. 1983
- Egile ugari. "El Parque natural de Urbasa y Andia". Gobierno de Navarra-Caja de Ahorros de Navarra. 1998

Kartografia

- IGN. "Olazti / Olazagutia, 113-IV". 1:25.000. 1996
- IGN. "Altsasu / Alsasua, 114-III". 1:25.000. 1996
- Nazabal, Mikel. "Urbasa Entzia Andia". 1:50.000. 1992

RESUMEN

LOS portillos son estrechos y, antes de existir las carreteras, representaba un duro esfuerzo alcanzar los rasos de Urbasa desde los pueblos de la Sakana, con gran desnivel y fuerte pendiente. Pero por allí subían los pastores y los mercaderes, los unos con sus rebaños y los otros con sus mercancías.

En este artículo, al que seguirá otro referido a Andia y Satrustegi, se explica la ascensión a diez portillos de la vertiente norte de la sierra de Urbasa.